



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailak 26**

**Vitoria-Gasteiz, 26 de julio de 2017**

## Lehendakaritza

### EUSKO JAURLARITZAK IA 4,5 MILIOI EURO BIDERATU DITU LARRIALDIETAKO ETA EKINTZA HUMANITARIOKO PROIEKTUETARA

- **Onartutako 15 proiektuen bitartez laguntza jasoko dute Palestinan, Saharan, Etiopian, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Afrika Erdiko Errepublikan, Sirian, Perun, Filipinetan eta Kolonbian krisi humanitarioek eragindako herritarrek**

Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez (GLEA), onartu du diru-laguntzak ematea Euskadiko GGKEei ekintza humanitarioko proiektuak gara ditzaten munduko hainbat lekutan. Hain zuzen, GLEAk dagoeneko esleitu ditu laguntza horietarako aurreikusitako 4,7 milioi horietako gehienak. Apirilean egin zen laguntza horietako bi modalitateetara biltzeko deia:

- **Finantzaketa iraunkorreko linea**, irekita dago urte osoan edota funtsak agortu arte: 2,3 milioi euro. Lerro horretakoak dira larrialdietarako proiektuak, hondamendiek eragindako pertsonen lehen laguntza eskaintzekoak. Hor sartzen dira, halaber, ekintza humanitarioko proiektuak, hondamendien aurrean prestatu eta prebenitzeko, hondamendien ondorioak arintzeko eta birgaitzeko, bakea eraikitzeko, eta giza eskubideak eta Nazioarteko zuzenbide Humanitarioa babesteko.
- **Ekintza humanitarioko esparru-estrategien linea**, lehiaketa bidez egiten da eta 2,4 milioi euroko funtsa du. Esparru-estrategien bitartez, alor humanitarioko erakunde espezializatuek laguntza eskaintzen dute batez ere ahaztutako krisialdietan. Iraupen eta aurrekontu luzeagoko ekintzak dira, komunikabideetan gutxiago agertzen diren krisiek eragindako herritarrei, eta beraz, emaila humanitarioengandik laguntza gutxiago jasotzen dutenei laguntzeko.

Lehenengo modalitateari dagokionez (**finantzaketa iraunkorreko lineako larrialdietarako eta ekintza humanitarioetarako proiektuak**), euskal GGKE hauek aurkeztutako 12 proiektutara bideratuko dira Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak:

- COOPERA Elkartearen proiektura, sexu indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei laguntzeko Kivu Sur-en (Kongoko Errepublika Demokratikoa).
- Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren Lagunen Elkartearen proiektura, Tinduf-eko saharar kanpamenduetako elikagaien stock-a sendotzeko.
- Zabalketa Elkartearen proiektura, hondamendi naturalen eraginak arindu eta horien arriskuak gutxitzeko planak egiteko Filipinetako hiru udalerritan.
- COOPERA Elkartearen proiektura, lurrikara bat izan ondoren Ekuadorreko Manabí probintzian kalitateko heziketa bultzatzeko.

- Ayuda en Acción Fundazioaren proiektura, El Niño fenomenoak Peruko iparraldeko itsasertzean eragindako uholde eta luizien eraginak arintzeko.
- Zabalketa Elkartearen proiektura, Kolonbiako Bahía Solano udalerrian La Niña fenomenoak kaltetutako herritarrei laguntza integrala eskaintzeko.
- UNRWAre (Nazio Batuen Palestinarako Agentzia) proiekturako, gatazkak kaltetutako haurrei laguntza psikosoziala emateko.
- UNICEFen proiekturako, Afrika Erdiko Errepublikan genero indarkeria, sexu-gehiegikeria eta sexu-esplotazioa jasan dutenei laguntzeko.
- Ayuda en Acción Fundazioaren proiektura, Etiopian lehortekak kaltetutako herritarren elikadura-baldintzak hobetzeko.
- Medicus Mundi Gipuzkoaren proiektura, Etiopian lehortekak kaltetutako herritarren osasun-baldintzak hobetzeko.
- Farmacéuticos Mundiren proiektura, Kongoko Errepublika Demokratikoko Kuvu Norte-ko herritarren osasuna hobetzeko.
- UNRWAre (Nazio Batuen Palestinarako Agentzia) proiekturako, Sirian errefuxiatutako herritar palestinarrei laguntzeko.

Bestalde, eta laguntzen bigarren modalitatea dela eta, **Ekintza Humanitarioko hiru esparru-estrategia** abiarazten lagunduko du Eusko Jaurlaritzak:

- UNRWAre (Nazio Batuen Palestinarako Agentzia) esparru-estrategia, Gazako emakumeen artean blokeoaren eragina gutxitzeko, osasuna, enplegua eta partaidetza soziala errazago eskuratzeko aukera eskainiz.
- Mundubat Fundazioaren esparru-estrategia, Tinduf-eko saharar kanpamenduetan ikasle gazteen erresilientzia indartzeko, horien dieta hobetuz, herrialde sahararraren giza eskubideak defendatzeko gazteen zeregina sendotuz eta horiek bizi duten egoera ezagutaraziz Euskadin.
- Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren Lagunen Elkartearen esparru-estrategia, Tinduf-eko kanpamenduetan ura eskuragarri izatea bermatzeko, ur-biltegiak ezarriz, uraren batzarrak eta ikus-entzunezko lehiaketa bat antolatuz, ura izatearen eskubideaz sentsibilizatzen.

## Lehendakaritza

### **FORU ALDUNDIEN BULTZADA EKONOMIKOA GAZTERIAREN ARTEAN INDARKERIA PREBENITZEKO BELDUR BARIK PROGRAMARI**

Gobernu Kontseiluak gazteriaren artean emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko Beldur Barik erakunde arteko programaren garapenerako eta finantziarako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta EAEko hiru foru aldundien arteko hiru hitzarmen baimentzea onartu du.

Emakundek antolatzen du eta koordinatzen du programa eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zein EUDEL-en babesa eta beste erakunde batzuen laguntza jasotzen du: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saila, Enpleguko eta gizarte politiketako sailaren Gazteria Zuzendaritza, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta EITB. Gaur hiru foru aldundiekin sinatu beharreko hitzarmena egiteko baimena onartu da, zeinaren bitartez Bizkaiko Foru Aldundiak 35.000 euro jarriko ditu, Gipuzkoako aldundiak 24.500 eta Arabakoak 12.000 euro. Emakundek 100.000 euroekin finantzatzen du programa.

Beldur Barik lehiaketa programaren ekintza nagusienetako bat da. 12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta adierazpen artistikoak saritzen ditu. Lan horiek erakutsi behar dute nola neska eta mutilek ezberdintasun egoerei aurre egiten dieten Beldur Barik jarrerarekin. Alegia, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerarekin.

Honekin batera, udalerrri ezberdinei sentsibilizazio materialak ere bidaltzen zaizkie eta jaien inguruan Beldur Barik Gunea esparruen sorkuntza proposamena luzatzen zaie. Ekimen hau jai eta aisialdi esparruetan zentratuta dago, gazteria indarkeria matxistaren kontrako konpromisoa hartzeko beharrean. Beldur Barik Guneko helburua arazo hau saihesteko nesken ahalduntze jarrera bat garatzea eta mutilen erantzukizun eta interpelazioa bultzatzea da.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### **GOBERNUAK HANDITU EGIN DU SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEKO GASTUA, 27,5 MILIOITIK 30,7RA**

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko programa finantzatzeko martxoan onetsi zuen 27,57 milioi euroko partida zabaltzea onetsi du. Kopuru hori, azkenean, 30.764.314,00 eurokoa izango da ekitaldi honetan – handitu ondoren–; beraz, horrek agerian uzten du Gobernuak euskal familiei babesa eta laguntza ematen jarraitzeko duen borondate irmoa.

Programak hiru jarduketa-ildo ditu: kargura dagoen seme-alaba bakoitzeko laguntza ekonomikoak, erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntza ekonomikoak eta nazioarteko adopzioagatiko laguntza ekonomikoak.

Aurrekontu-zuzkidura eguneratzean, laguntzen programak ez du edukian aldaketarik izan, alegia, jarraitzen du hiru jarduketa-ildo berak izaten: kargura dagoen seme-alaba bakoitzeko laguntza ekonomikoak, erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntza ekonomikoak eta nazioarteko adopzioagatiko laguntza ekonomikoak.

Kargura dagoen seme edo alaba bakoitzeko laguntzak 400, 500 edo 900 euro dira, familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera. Zenbateko horiek bikoiztu egingo dira, baldin eta laguntzaren helburu den semeak edo alabak % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasun-egoera aitortuta badu. Laguntzaren helburu den semeak edo alabak familia-unitatean duen lekuaren arabera izango da.

Horrela, lehen semeagatik edo alabagatik ordainketa bakarra jasoko da; bigarren semeagatik edo alabagatik, ordainketa bakarra egingo da, jaiotzen den urtean eta beste bat, urtebete betetzean. Hirugarren umeagatik edo gainerakoengatik, ordainketa bat egingo da jaiotzen den urtean, eta beste bat urtebete, bi, hiru, lau, bost eta sei urte betetzen dituenean.

Erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntzak ordainketa bakarrean egingo dira, eta zenbatekoa aldi berean jaiotako edo adoptatutako umeen arabera izango da, bai eta familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera ere. Nazioarteko adopzio anizkoitzaren antzekoak dira adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzaren ordezkariak eta, aldi berean eta prozedura bakarrean, adingabe birengan edo gehiagorengan eragiten duen tutoretza.

Azkenik, nazioarteko adopzio sinpleagatiko edo anizkoitzagatiko laguntzak ordainketa bakarrean emango dira, eta horien zenbatekoa aldi berean adoptatutako umeen arabera eta familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera izango da.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### GOBERNUAK 22 MILIOI EUROREN BIDEZ SUSTATZEN DU TOKI ERAKUNDEEK ENPLEGUA SORTZEKO PROIEKTUAK ABIAN JARTZEA

Beatriz Artolazabal Enpleguko eta gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, **EAEko toki-erakundeek enplegua sortzeko proiektuak abian jartzea sustatzeko 22 milioi euro baliatzea** onetsi du. 2016an erabilitako kopurua baino 0,8 milioi gehiago da.

Lanbidek kudeatzen duen laguntzen programa horrek aurreikusten dituen ekimenak autonomia-erkidego osoko udalerrri, udalerrri-multzo, mankomunitate eta kuadrillekin lankidetzan egiten dira.

Enplegurako tokiko laguntzen bidez, toki-oinarriko enplegua sortzeko proiektuak sortzea, lurraldearen garapen sozioekonomikoa eta modernizazioa eta enpresen lehiakortasuna hobetzea sustatzen da, tokiko lan-merkatuaren errealitatera egokituz.

Gainera, proiektu horiek gizarte-orientazio nabaria dute; izan ere, lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboek zuzentzen zaizkie, besteak beste, lehen okupazioa bilatzen ari diren 35 urtetik beherakoei edo epe luzeko langabeei.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK 4,1 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU PERTSONA EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarekin hartutako akordioaren berri eman du; haren bitartez, onartu egin dute 2017 ekitaldirako pertsona ekintzaileentzako laguntza deialdia.

Enpresa egitasmoak sustatzen dituzten pertsonen zuzendutako diru-laguntzak jarri dituzte, eta 4,1 milioi euro bideratuko dira horretarako.

Lau diru-laguntza ildo existitzen dira:

- a) Ekintzaileak izan daitezkeen pertsonentzako laguntzak, enpresa ideia bat tokiko ekintzailetza proiektuetan kokatuta sortu, aztertu eta egituratzen eskusiban landu dezaten. (ENPRESA IDEIA BAT GARATZEKO LAGUNTZAK)
- b) Tokian tokiko egitasmoetan oinarrituta, negozioaren ideia jakin bat duten pertsona ekintzaileen enpresa egitasmo berriak martxan jartzera bideratutako laguntzak. (ENPRESA EGITASMO BERRIAK MARTXAN JARTZEKO LAGUNTZAK)
- c) Enpresa jarduera bati ekin eta hura hasteko diru-laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak (EGITASMOA HASTEKO LAGUNTZAK). Ildo berri hau 2017ko deialdirako gehitu da.
- d) Enpresa jarduera bati ekin dioten pertsonentzako laguntza, jarduera hori sendotzeko. (EGITASMOA SENDOTZEKO LAGUNTZAK).

Gainera, deialdi honen xedea dira a) eta b) idatz-zatietan aipatutako laguntzak hartzen dituzten pertsona ekintzaileen aukeraketa eta akonpainamendu edota tutorizazioari aurre egiteko laguntzak; ekintza horiek tokiko erakunde laguntzaileek garatuko dituzte.

Diru-laguntzen zenbatekoaz, **ondorengoak finantzatuko dira:**

**Tokiko erakunde laguntzaileak**, enpresa ideia bat garatzeko aholkularitza eta tutorizazioaren kostua, 300 euro/pertsonako zenbatekoaz; enpresa egitasmo berri bat martxan jartzeko, 1.000 euro/pertsona sustatzaileko zenbatekoaz.

#### **Pertsona sustatzaileak:**

- Beren enpresa ideia aztertu eta garatzeko lanean eskusiban aritzeko.
- Esleitu beharreko gutxienezko zenbatekoa 1.000 euro da pertsona sustatzaile bakoitzeko, eta gehienezkoa, berriz 1.300 euro.
- Enpresa egitasmo edo negozio bat martxan jartzen eskusiban aritzeko. Esleitu beharreko gutxienezko zenbatekoa 1.500 euro da pertsona

sustatzaile bakoitzeko, eta gehienezkoa, berriz 1.950 euro.

- Jarduerari lotutako aktibo finko jakin batzuetako inbertsioak. Gutxienezko zenbatekoa 3.500 euro izango da pertsona onuradun bakoitzeko, eta gehienezkoa, berriz, 4.550 eurokoa.
- Enpresa sortu berri baten sustapen, funtzionamendu eta kudeaketarako gastuak. Gutxienezko zenbatekoa 2.500 euro izango da pertsona onuradun bakoitzeko, eta gehienezkoa, berriz, 3.250 eurokoa.

2017rako, ondorengoak finantzatzea aurreikusi da: enpresa ideia garatzeko 310 pertsona sustatzaile; enpresa jarduera berriak martxan jartzeko 250 pertsona sustatzaile; enpresa egitasmoa hasteko laguntzak hartzen dituzten 260 pertsona; eta enpresa egitasmoa sendotzeko laguntzak hartzen dituzten 724 pertsona.



## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK IA SEI MILIOI EURO BALIATUKO DITU ORIENTAZIORAKO EKINTZA ETA ZERBITZUAK GARATZEKO

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarekin hartutako akordioaren berri eman du; haren bitartez, onartu egin dute 2017. urterako laguntza deialdia **Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuekin lankidetzan enplegu orientaziorako ekintzak eta zerbitzuak garatzeko. Ia hiru milioi bideratuko dira, 2.996.250 euro, helburu horretara. Deialdi honen bitartez, 30.000 pertsonari arreta ematea aurreikusitua da.**

Programa honetako laguntzen bitartez, jarduera horri atxikitako zeharkako zein zuzeneko gastu arruntei aurre egin ahal izateko finantzaketa jarriko da, 34 euro orduko zenbateko batez. Diruz lagundu ahal izango den gehieneko zenbatekoa langileen zuzeneko gastuen % 140 da, horrelako gastutzat hartuz diruz lagundutako orientazio ekintzak egiteko baliatutako pertsonen soldata eta Gizarte Segurantzaren kostuak, eta muga izango da lanaldi osoz pertsona bat kontratatua izatea egindako 1.500 orduko.

Orientazio ekintza eta zerbitzuen definizioa ondorengoa da: pertsonari, haren zirkunstantzia profesionalak kontuan hartuz, gaitasunak eta interesak zehazteko eta ikasketako ibilbide indibiduala, enplegu bilaketa edo enpresa ekintzak praktikara eramatea kudeatzeko balio dioten informazio, akonpainamendu, motibazio eta aholkularitza neurriak.

Orientazio zerbitzuaren bitartez, erakunde onuradunek ondorengo jardueretan arituko dira:

- Informazioa: lan merkatua, sailaren enplegu politika aktiboa, eta zerbitzu arrunt eta osagarrien eskaintza.
- Eskatzailearen banakako diagnostikoa egin eta profila zehaztea.
- Enplegurako ibilbide pertsonalizatua diseinatzea.
- Lan ibilbideko eta jarduera betetzeko konpromisoari buruzko akonpainamendu pertsonalizatua.
- Curriculum definitzeko informazio, aholkularitza eta laguntza tekniko gehigarria, pertsonaren profil profesionala gaitasun profesionalen arabera adierazteko.
- Enplegu bilaketa aktiborako tekniken inguruko aholkularitza eta aplikazioa.
- Aukera profesionalak identifikatzeko informazioa eta aholkularitza.

- Kontratazioa eta enpresan sartzeko laguntza bitartekoei buruzko informazioa eta aholkularitza.

### **Desabantaila duten taldeak**

Aldi berean, Artolazabal sailburuak Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarekin hartutako akordioaren berri eman du; haren bitartez, onartu egin dute 2017. urterako laguntza deialdi bat Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan desabantaila duten giza taldeetako pertsonen zuzendutako enplegu orientaziorako ekintzak eta zerbitzuak garatzeko. 2.802.790 euro bideratuko dira horretara. Aurreikusitako aurrekontu esleipen horren bitartez, 2017ko deialdian 15.000 pertsona ingururi eman nahi zaie arreta.

Deialdi honen xedean zehaztutako desabantaila duten giza taldeak ondorengo biztanleria multzoak dira:

- Egoera penalean eta orientazio zerbitzua jasotzera ateratzeko moduan espexeratua dauden edo zerbitzua hasi aurreko 18 hilabeteetan espexeratuta egon diren pertsonak.
- Ijitoen giza taldeko pertsonak.
- Gutxienez % 33ko desgaitasuna aitortu zaien pertsonak.
- Gizarte-bazterketa, gizarte-bazterketa arrisku eta bestelako desabantaila egoeretako pertsonak.

Programa honetako laguntzen bitartez, jarduera horri atxikitako zeharkako zein zuzeneko gastu arruntei aurre egin ahal izatea finantzatu da, 34 euro orduko zenbateko batez. Diruz lagundu ahal izango den gehienezko zenbatekoa langileen zuzeneko gastuen % 140 da, horrelako gastutzat hartuz diruz lagundutako orientazio ekintzak egiteko baliatutako pertsonen soldata eta Gizarte Segurantza kostuak, eta muga izango da lanaldi osoz pertsona bat kontratatua izatea egindako 1.500 orduko.

Laguntza horiek Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzen dira.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK 4 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LEHEN AUKERA PROGRAMARA 2017AN

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak laguntzen deialdi bat onartu du 2017 ekitaldirako Lanbidek kudeatutako Lehen Aukera programaren bitartez euskal enpresek pertsona langabe gazteak kontrata ditzaten. 4 milioi euro bideratuko dira horretara.

Krisiak gogor astindutako gazteen gizarte zatiak hezkuntzatik bizitza profesional arteko bidea errazago igarotzeko, Eusko Jaurlaritzak laguntza programa bat jarri zuen abian 2014an, lanbide heziketa, unibertsitatea edo ziurtapen profesionala duten 30 urtez beheko gazteek lan kontratu mugagabe batez edo praktikan beren titulazioari lotutako lehendabiziko lan esperientzia bat izan zezaten.

Hiru urte geroago, Lehen Aukera Programa sendotu egin da lan merkaturako bidea egiteko gazte biztanleriarentzako baliozko bitarteko gisa; 2017rako aurreikuspena da programa honi lotuta praktikatuko 872 lan kontratu eta 90 lan kontratu mugagabe finantzatzea.

Bi diru laguntza ildo daude:

- a) Egoitza soziala edo fiskala edo lantokia EAEn duten enpresentzako laguntzak ondorengoetarako: lan kontratu mugagabeak edo eta gutxienez 6 hilabete luzeko praktikatuko lan kontratuak egitea, EAEn bizi eta titulazioa duten 16 urtez gorako eta 30 urtez beheko gazteekin.
- b) Erakunde laguntzaileentzako laguntzak, Lehen Aukera Programaren 2017ko deialdiaren arabera diruz lagundutako lan kontratuak gauzatzera heltzen diren lan eskaintzak atzeman, erregistratu eta kudeatzearen.

Diru-laguntzen zenbatekoaz, ondorengoak finantzatuko dira:

#### ❖ Enpresak:

- Praktikatuko kontratazioan, 2.800 euro eta 4.500 euro arteko diru laguntzak emango dira kontratatutako pertsonaren titulazioaren arabera. Zenbateko horiek % 10 igoko dira lan kontratuak gutxienez 12 hilabete irauten badu.
- Kontratazio mugagabeen, 5.200 euro eta 7.600 euro arteko diru laguntzak emango dira kontratatutako pertsonaren titulazioaren arabera.
- Aurreikusitako zenbatekoak % 10 igoko dira lan kontratuak emakumeekin egin eta partaidetza gutxiago duten lan jardueretarako egiten badira.

- Lan kontratuak lanaldi partzialekoak badira zenbatekoak lanaldiarekiko proportzioan egokituko dira.
- ❖ Erakunde laguntzaileak, diruz lagundutako kontratu bakoitzeko:
  - 120 euro eskaintza atzeman eta erregistratzearen.
  - 80 euro eskaintzea kudeatzearen.
  - % 10 gehiago diruz lagundu eta formalizatutako 20 lan kontratuko sorta bakoitzeko, horien eskaintza atzeman, erregistratu edo eta diruz lagundu dituenen.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK ABIAN JARRI DITU LAN-MERKATU ARRUNTEAN ENPLEGU LAGUNDUA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

**Beatriz Artolazabal** Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman du; akordio horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan, 2017. urterako enplegu-zentroen jarduerak garatzeko laguntzen deialdia onetsi da. **Horretarako, 1,9 milioi euroko partida onetsi da.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Lanbiden inskribatuta dauden enplegu-eskatzailleentzako enplegu-zentroaren jardueraren garapenean lankidetzan jarduteko behar diren eskakizunak betetzen dituzten erakundeentzako laguntzak dira. 2017rako deialdiaren helburua da lan-zentroen erabilera erregistratzeko sistema hobetzea eta **40.000 pertsonari arreta ematea.**

Diru-laguntzak, 1.892.000 eurokoak, honako hauek finantzatzera bideratuta daude:

- EAEn 43 enplegu-zentrotako jarduera; horietatik, hiru gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetara zuzenduta daude, eta egokitzapen eta laguntza tekniko bereziak dituzte, behintzat entzuteko edo ikusteko hainbat gradutan defizitak dituzten pertsonen eta mugikortasun urria duten pertsonen zentroa erabiltzen dutela bermatzeko.
- Jarduera honi atxikitako gastu arrunt zuzenak eta zeharkakoak ordaintzea, diruz laguntzeko gehieneko erreferentzia gisa langileen zuzeneko gastuen % 140 izanik; halakotzat jotzen dira diruz lagundutako orientazio-ekintzak egiten dituzten pertsonen soldaten kostuak eta gizarte-segurantzakoak, gehienez 44.000 euroan enplegu-zentro bakoitzeko eta urtebeteko jardueragatik.

Enplegu-zentroaren jardueraren helburua da enplegu-eskatzailleek errazago jotzea enplegu-bilaketari buruzko informazioa lortzeko tresna eta teknologietara eta, aldi berean, erabiltzaileen autonomia sustatzea beren bizitzako eta lanbideko proiektua kudeatzean, langile orientatzaile espezializatuak lagunduta.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK TXANDA KONTRATURAKO LAGUNTZEN DEIALDI BERRIA JARRI DU ABIAN

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2017 ekitaldiko txanda-kontraturako laguntzen deialdia onetsi du.

Erretiro partziala hartuko duen langile bat 30 urtetik beherako beste batek ordezkatzea da Eusko Jaurlaritzak, gaur, enpleguaren alde hartutako neurrietako bat, eta neurri hori Euskadiko Hiruko Elkarrizketa Sozialerako Mahaiak 2015eko urtarrilean plantillako langile-taldeak gaztetzeko hartutako akordioaren eraginez aplikatuko da.

Laguntza horien azken hartzaileak lanaldi osoko txanda-kontratu bidez kontratatzen diren 30 urtetik beherako langileak edo langabeak dira. Kontratu horrek mugagabea izan behar du hasieratik edo mugagabe bilakatu beharko da, gehienez txandakatu den pertsona erabat erretiratzen denean. Hartzaile dira, halaber, txanda-kontraturen baten ondorioz, kontratu osagarria sinatzen duten 30 urtetik beherako langabeak ere. Diru-laguntza 6.000 eurokoa izango da, kontratatzen den pertsona bakoitzeko.

Programa horren bidez, honako jarduketak hauek finantzatzen dira:

1) Enpresek egiten dituzten lanaldi osoko txanda-kontratuak eta epe mugagabeak, edo iraupen mugatukoak baldin eta kontratu amaitzean edo aurretik mugagabe bilakatzeko konpromisoa jasotzen bada. Kontratu horien pertsona hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 30 urtetik beherakoak izatea.

b) Honako egoeraren batean egotea:

b.1. Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta egotea langabe gisa, kontratu hasten den egunean, eta altako administrazio-egoeran egoera horretan gutxienez 180 egun egon izana kontratu hasi aurreko 9 hilabeteetan.

b.2. Enpresarekin iraupen mugatuko kontratu hitzartuta izatea; kasu horretan, enpresak, txanda-kontratuaz gainera, kontratu osagarria egin beharko du gutxienez b.1. edo b.3. atalean aurreikusitako baldintza betetzen duen 30 urtetik beherako pertsonarekin duen aldi baterako kontratu hori amaitzeko falta den denborari dagokion denboraz.

b.3. Enpresan bertan praktiketako kontratu edo prestakuntza eta ikaskuntza jasotzeko kontratu hitzartuta izatea, edo 1543/2011 Errege Dekretuan arautzen diren lanez kanpoko praktiken aldia garatzea, eta gero txandako langile izatea, kontratu-aldirako edo lanez kanpoko praktikaldirako

ezarritako epearen barruan edo amaitu eta hurrengo egunean.

- 2) Kontratu osagarria: enpresan gertatzen diren erretiro partzialen ondorioz enpresan bertan dauden langileen txanda-kontratuak betetzeko prozeduren inguruko aurretiko akordioak egonez gero, 1.a) atalean ezarri den adinaren gaineko betekizuna ez zaio aplikagarri izango txanda-langileari. Kasu horretan, laguntza eskuratzeko, enpresak, txanda-kontratuaz gainera, kontratu osagarria egin beharko du honako kasu hauetan: Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa inskribatuta dagoen 30 urtetik beherako pertsona batekin, kontuan hartuta kontratua hasten den egunean langabezia-egoeran egon beharko duela eta, kontratua hasi aurreko 9 hilabetean, altako administrazio-egoeran gutxienez 180 egun egon dela; edo praktiketako kontratua edo kontratazioa jarraitu ahal izateko prestakuntzarako edo ikaskuntzarako kontratua amaitu duela; edo 1543/2011 Errege Dekretuan arautzen diren lanez kanpoko praktiken aldia amaitu duela, gero kontratazioa egin ahal izateko, aldi baterako kontratu hori amaitzeko falta den denborari dagokion denboraz, gutxienez.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK MARTXAN JARRI DITU KANPOAN DAUDEN EUSKAL ENPRESEN LAN-ZENTROETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluan Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman du; akordio horren bidez, 2017. urterako **gazte langabeak kanpoan dauden euskal enpresen lan-zentroetan praktikak egiteko kontratatze laguntzen deialdia** onetsi du. **Milioi bat euro baino gehiago erabiliko da horretarako.**

Deialdi honen helburua da talentu gaztea garatzea, eta, horretarako, beren titulazioarekin bat datozen enpleguetan lanbide-esperientzia eskuratzea, eta euskal lan-merkatuan hobeto laneratzea, aukera-berdintasunaren eta 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiak ezartzen duen gazteentzako enpleguaren ezinbesteko sustapenaren esparruan.

Laguntzek soldata-kostuen eta segurtasun sozialaren kostuen % 50 finantzatzen dute, honako muga honekin: 13.100 euro, unibertsitate-titulua duten pertsonen egindako kontratu bakoitzagatik; 11.800 euro, unibertsitatez kanpoko titulazioa duten pertsonen egindako kontratu bakoitzeko.

Deialdiak 34 urteko edo gutxiagoko gazte langabeen kontratazioa sustatzen du, aurretik lan-esperientziarik ez dutenena edo lan-esperientzia eskasa dutenena eta praktiketako kontratua sinatzeko aukera ematen dien titulazioa dutenena.

Lan-kontratuak 12 hilekoa izan beharko du, gutxienez, lanaldi osoan, eta titulazioarekin edo kualifikazioarekin lotutako enpleguak garatzeko. Kontratuak Espainiako estatutik kanpo euskal enpresen lan-zentroetan laneko funtzioak betetzeko 6 hilabete aurreikusi beharko ditu.

Euskal enpresa kontratatzaileak kanpoan lan-zentroak, partaidetzako enpresak edo enpresa-talde bereko enpresak izan beharko ditu, edo lankidetzak-akordioaren bidez edo zerbitzuak emateko kontratuen bidez lotutako enpresak.

### 35 urtetik gorakoak

Era berean, Artolazabal sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman du; akordio horren bidez, 35 urtetik gorako langabeak kanpoan dauden euskal enpresen lan-zentroetan praktikak egiteko kontratatze laguntzen deialdia onetsi du. 400.000 euro bideratuko dira.

Deialdi honen helburua da 35 urteko edo gehiagoko langileen laneratzea eta lan-asmoak hobetzea eta, horretarako, beren kualifikazioari eta/edo lanbide-esperientziari balioa ematea, 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiak ezartzen duen aukera-berdintasunaren esparruan, beren titulazioarekin edo kualifikazioarekin lotutako eta enpresa nazioartekotzeko prozesuekin zerikusia duten enpleguetan.



Era berean, helburua da euskal ekonomiaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea eta, horretarako, nazioartekotuta dauden edo nazioartekotzeko prozesuan dauden EAeko enpresei laguntzea.

Deialdiaren bidez, 35 urteko edo gehiagoko pertsonak kontratatzea sustatzen da, beren titulazioarekin edo kualifikazioarekin lotuta dauden eta enpresa nazioartekotzeko prozesuekin zerikusia duten enpleguetan gaitasunak eta/edo lanbide-esperientzia dutenak.

Egiten diren lan-kontratuek, gutxienez, 12 hilabete iraun beharko dute, lanaldi osoan, eta gutxienez 6 hilean lan-zereginak betetzeko aldia eduki beharko dute, Espainiako estatutik kanpoko lan-zentroetan.

Diru-laguntzen zenbatekoa honako enpresa hauek finantzatzeko baliatuko da: langile kontratatuen soldata-kostuen eta segurtasun sozialaren kostuen % 50, honako muga honekin: 20.250 euro, 35 eta 49 urte bitarteko pertsonen egindako kontratu bakoitzeko; eta 22.500, 50 urteko edo gehiagoko pertsonen egindako kontratu bakoitzeko.

Laguntza horiek Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzen dira.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK MARTXAN JARRI DITU OHIKO LAN MERKATUAN ENPLEGU LAGUNDUA BULTZATZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluarekin hartutako akordioaren berri eman du; haren bitartez, onartu egin dute 2017 ekitaldirako ohiko lan merkatuan desgaitasuna duten pertsonen integrazioarako neurri gisa enplegu lagunduko ekintzak garatzeko laguntzak. Horretarako, Lanbidek milioi bat euro baliatuko ditu. Laguntza horiek Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatzen dira. 2016an, 850.000 euro bideratu ziren horretara.

Programa honetako laguntzek, enplegu aukeren prospekzio eta detekzio helburuetan eta lan kontratu bidezko lan-munduratzeko helburuetan oinarrituta, finantzatu egiten dituzte erakunde onuradunen Enplegu Lagunduko Unitateetako pertsona langileen soldata eta Gizarte Segurantza kostuak. Halaber, finantzatzen dute langileen zuzeneko kostuen % 10 zeharkako gastu gisa, kostu sinplifikatuen modalitatean.

Lan-kontratuek gutxienezko lanaldiko iraupen eta ehunekoaren baldintza bat bete behar dute deialdi honen oinarrietan onartuak izateko: gutxienez, sei hilabete luze izan behar dira, eta lanaldi osoko langile baliokidearen lanaldiko % 35eko dedikaziora heldu.

Deialdi honen bitartez, ohiko lanean hasi eta desgaitasuna duten pertsonen kopuruak gora egin du 2014tik eta, beraz, aurrera goaz pixkanaka enpleguan hasteko zailtasunak dituzten pertsonen aukera berdintasunen eta lan-inklusioren bidean.

Enplegu Lagunduko Unitateak profesional anitzeko lantalde gisa eratzen dira eta, gutxienez, lan-prospekziogile eta lan-prestatzaileko figura bana dituzte. Dagozkien eginkizunen bitartez, kontratazio aukeren identifikazioari heltzen diote, postuak eta pertsona hautagai egokiak ezkontzen dituzte, lanpostuen arazoizko egokitzapen beharizanak detektatzen, eta zuzeneko laguntza eta prestakuntza ematen dituzten, lanpostuan hasi aurretik zein ohiko enpresako kontratazio denboran.

Enplegu Lagunduko Unitateek, al bait autonomia handienaz eta antzeko postuetan diharduten pertsona langileen antzeko baldintzetan, desgaitasuna duten pertsonen lagundu egiten diete ohiko lan merkatuko enpresetan lan egiten eta integratzen.

Enplegu Lagunduko ekintzak ohiko merkatuan desgaitasun larria duten pertsonen lan-munduratzeko babestera zuzenduta daude. Horretarako, ondorengo pertsonen zuzentzen zaie:

- Adimen desgaitasuna dutenak: % 33ko maila edo gehiago aitortuarekin, buruko gaixotasuna edo burmuineko paralisia dutenak.

- % 65eko maila edo gehiago aitortuarekin, desgaitasun fisikoa edo sensoriala dutenak.
- % 33ko maila edo gehiago aitortuarekin, entzuteko desgaitasunak dituztenak.

## Hezkuntza

### **569,92 MILIOI IKASTETXE PRIBATUEN HEZKUNTZA-ITUNAK FINANTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuen 2017-2018 ikasturteko hezkuntza-itunak gauzatu ahal izateko gastu aurreikuspena.

Gastu aurreikuspena 569.916.029 eurokoa da.

Hezkuntza-itunak berritu edo izenpetzeko eskaera egin ahal izango dute, Euskadin honako ikasketa hauek eskaintzeko baimenduta dauden ikastetxe pribatuek: Haur Hezkuntza (bigarren zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa. Era berean, Hezkuntza Bereziko gela egonkorak eta zereginen ikasketarako gelak ere ituntzen dira.

Hezkuntza-itunen bidez, ikastetxe pribatuetako irakaskuntza-jardueratik eratortzen diren gastuak finantzatzen dira, aurrez aipaturiko etapa horietan. Ikastetxean matrikulaturiko ikasle kopuruaren eta osaturiko taldeen arabera kalkulatzen den diru-kopuru hori, pertsonal gastuetara (izan irakasle edo ez irakasle), nahiz ikastetxeen ohiko funtzionamenduak eragindako gastuetara bideratzen da.

2017-2018 ikasturte honetan 299 itunpeko ikastetxe daude Euskadin: 34 Araban, 151 Bizkaian eta 114 Gipuzkoan. Orotara, 7.145 itunpeko gela batzen dituzte guztien artean, unibertsitatez kanpoko hezkuntza maila guztietakoak.

## Hezkuntza

### 55 MILIOI UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEEI ZUZENDURIKO BEKETARAKO

- **Baldintzak betetzen dituen familia orok laguntza jasoko duela bermatzen du Eusko Jaurlaritzak**
- **Joan zen ikasturtean 125.750 ikasle bekadun izan ziren Euskadin, eta 188.809 laguntza eman ziren**
- **Eskaerak aurkezteko epea, irailaren 18tik urriaren 18ra zabalik**

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, 2017-2018 ikasturtean unibertsitatez kanpoko mailetako ikasleak eskolatzeko diru-laguntzak deitzen dituen Agindua onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez. Deialdiak 55 milioi euroko diru-kopurua du.

Diru-laguntza edo beka hauek honako osagai hauetako bat edo zenbait har ditzakete bere baitan: kuota osagaia, irakaskuntzaren osagaia, joan-etorrietarako osagaia, egoitza osagaia, ikasmaterialetarako osagaia eta jantokiaren osagaia. Beka hauen onuradun izan daitezke 2017-2018 ikasturtean ondorengo ikasketa maila hauek burutuko dituzten ikasleak:

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Lanbide Heziketako zikloak
- Musikako eta Dantzetako oinarrizko irakaskuntzak nahiz profesionalak
- Arte plastikoak eta Diseinua
- Kirol irakaskuntzak

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 18tik urriaren 18ra arte egongo da irekia.

Joan den 2016-2017 ikasturtean unibertsitateaz kanpoko mailetako 125.750 ikasle bekadun izan ziren Euskadin eta horien guztien artean 188.809 laguntza banatu ziren.

## Hezkuntza

### **11, 7 MILIOI HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK KONTRATATZEKO LAGUNTZATAN**

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren agindu bat onetsi du. Agindu horren bidez, hezkuntza-premia bereziak dauzkaten ikasleak eskolaratzen dituzten itunpeko ikastetxeei, 2017-2018 ikasturterako hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzekeo beharra dutenei, laguntzak emateko deialdia egiten da.

Deialdi horien helburua, 11.704.788 eurokoa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak integratzeko programa gehiago garatzea da; horretarako, itunpeko ikastetxeei hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatzekeo laguntzak emango zaizkie. Hezkuntza-laguntzako espezialistek ezgaitasun fisiko, psikiko edo jokabide-nahasmendu larria duten ikasleen jarduera-planetan parte hartzen dute, autonomiarekin, eta ingurunerako nahiz eskola-curriculumerako irisgarritasunarekin zerikusia duten premietan esku hartuz.

Diru-laguntza hauek jasotzeko eskubidea Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe pribatuen titularrek izango dute, baldin eta eskaera aurkezteko unean itunpekoak badira; betiere, Berritzeguneko aholkularien iritziz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dauzkaten ikastetxeak izango dira, ikasle horiek normal integratzea eta eskolako jardueretan eskola-orduen barruan parte hartzea errazteko laguntzaileen beharra dutenak.

Hezkuntza Sailak bere gain hartu du elbarritasunari edo portaeraren arazo larriei lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen inklusioaren aldeko konpromisoa. Helbidetik hurbil dagoen hezkuntza-ingurune batean egoteko eta, batez ere, parte hartzeko elbarritasun fisikoa, psikikoa eta sentsoriala edo portaeraren arazo larria duten haur edo gazteen eskubidea bermatzeko, ezinbestekoa da ikastetxeek profesional espezializatuak izatea, ikasle elbarrituen autonomiari eta irisgarritasunari lotutako premiak direla-eta egin beharreko esku-hartzean espezializatutako laguntza-pertsonala, besteak beste.

Itunpeko ikastetxeetan ikasi eta parte hartzeko oztopoak kendu ahal izateko bitartekoak jarri nahi ditu deialdi honek. Horrela, kalitateko hezkuntza-erantzun egokia, haien premiei egokitu eta ohiko ingurunean, bermatu ahal izango zaie elbarritasun psikiko edo nahaste autista batengatik autonomiarekin mugitzeko muga inportanteak dituzten ikasleei, gurpil-aulkia erabili edo ez; hitz batean, maila pertsonalean edo sozialean autonomoa izateko elbarritasun edo zailtasunak dituen ikasle orori.

2017-2018 ikasurtean, hezkuntza-laguntzako 1.113 espezialista izango dira lanean Euskadiko ikastetxeetan, 593 ikastetxe publikoetan eta 520 itunpekoetan. Orotara, 2.765 ikasle edukiko dute euren ardurapean.

## Hezkuntza

### **650.000 EURO ALTERNANTZIAREN BIDEZKO PRESTAKUNTZARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2017-2018ko ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeetan alternantziako prestakuntza-proiektuak aurrera eramateko diru-laguntzak deitzen dituen agindua.

Alternantziako prestakuntza-proiektuak, Lanbide Heziketako titulu bat lortzera bideratuak, diruz, 650.000 euroko zenbateko globalean, laguntzea du agindu honek helburu, 2017-2018ko ikasturtean aurrera eramango den ikaskuntza-prozesu baten bidez.

Ikastetxean bertan eta lantokian egiten diote prestakuntzari aurre alternantziako prestakuntza-proiektuek eta gaitasun profesional, pertsonal eta sozialak hobetzea dute helburu, hasierako Lanbide Heziketaren titulu bat ikasketak eta enpresan ordaindutako lan-jarduera bat batera eginez lortzeko. Heziketa-zikloak egiten dituzten pertsonen prestakuntzari eta pertsona horiek enpresen produkzio-sistemara sartzeari eman nahi zaie laguntza, pertsonen ikaskuntza integralaren eredu bat garatuz.

### **400.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA UNEDI**

Gobernu Kontseiluak onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, UNED-i 400.000 euroko diru-laguntza ematea.

Diru-laguntza hau, Hezkuntza sailaren 2017ko aurrekontuetan UNEDentzat erreserbatutako kopurua da eta unibertsitateen artean matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera banatzen da.

## Hezkuntza

### **100.000 EUROK EUSKARAZKO CURRICULUM-MATERIALAK PRESTATZEKO**

Hezkuntza sailburuaren proposamenari jarraituz, gaurko Gobernu Kontseiluak onartu du euskarazko curriculum-materialak prestatzeko laguntzetara dei egiten duen agindua (EIMA IV).

Agindua honen jasotako 100.000 euroko laguntzaren bidez, euskarazko curriculum-materialak prestakuntza sustatu nahi da, gero EAEko irakasleek erabil dezaten materiala.

### **GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO TITULAZIOEN KREDITUAK AITORPENA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Hezkuntza saila) eta Deustu, Mondragon eta Euskal Herriko Unibertsitateen arteko akordioak, izenpetzeko baimena emateko erabakia hartu du, Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren Goi mailako Lanbide Heziketako Titulazioen eta Deustu, Mondragon eta Euskal Herriko Unibertsitateak ematen dituen Graduoko unibertsitate titulazioen artean kreditu aitortzeko.

### **IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko egunean onartu du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titularrak diren kooperatibentzat diru-laguntzak deitzen dituen agindu bat.

Irakaskuntza-kooperatibentzat diru-laguntzak deitzea, 33.000 euroko zenbateko globalean, du agindu honek helburu, ikastetxe desberdinetako ikasleentzako jarduerak egiteagatik dituzten gastuetan laguntzeko eta ikasleen gurasoen prestakuntzarako.



## Osasuna

### OSASUN SAILAK 2,6 MILIOI EURO ZUZENDU DITU ADIKZIOEN ARLOAN ZENBAIT JARDUN AURRERA ERAMATEKO LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak agindu bat onartu du gaur. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak aurten **2.618.400 euro** zuzentzen ditu EAEn lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko tokiko entitateei eta erakundeei zuzenduta, **adikzioen arloan** gizarte-prebentzioko programak aurrera eramateko eta arriskuak eta kalteak prebenitu eta murrizteko proiektuak egiteko. Era berean, adikzioen inguruko toki-erakundeetako gizarte-prebentzioko talde teknikoak mantentzera zuzenduko dira laguntzak.

Toki-esparruan eta osasungintzakoaz bestelako sektoreetatik gauzatzen diren jardunetan osasuna sustatzeko helburuarekin deitu ditu Osasun Sailak laguntza horiek. Horien xedea da 2017-2021 aldirako Adikzoei buruzko EAeko VII. Planeko jardun-ildoetan hoberen ezarritako programa eta proiektuei eustea. Plan hori berriki onartu du Eusko Jaurlaritzak. Gainera, beste helburu bat da adikzioen inguruko premia berriak ezagutzera ematea eta horiei erantzuteko proiektu berriei laguntzea, baita programak eta proiektuak hobetzea ere.

Diru-laguntza horiek dira adikzioen inguruan EAEn gauzatzen den zereginaren bermeetako bat. Horretan, funtsezkoa da erakunde arteko lankidetzeta eta hirugarren sektorearekiko eta kolektiboekiko elkarlana.

Hala, Eusko Jaurlaritzak eta Osasun Sailak eutsi egiten die adikzioen fenomenoari gizarte-esparrutik heltzeko eta erantzuteko konpromisoari, Adikzoei buruzko EAeko VII. Planaren arabera. Hain zuzen, berori da adikzioen arloan EAEn gauzatzen diren estrategia eta esku-hartze guztiak planifikatu, ordenatu eta koordinatzeko tresna, 2013-2020 Osasun Planarekin batera. Horren lehentasunezko xedea da bizimodu osasungarriekin lotutako prebentzio- eta sustapen-ekintzak abian jartzea (sektore arteko lankidetzaren eta tokiko eta gizarteko lanaren bidez); oso bereziki kontuan izanda tabakoaren, alkoholaren eta bestelako substantzien presentzia eta eskaintza murriztera zuzendutako ekintzak.

Zehazki, diru-laguntza hiru ildotan banakatzen da, honela, hain zuzen:

- ✓ Adikzioen gizarte-prebentziorako talde teknikoak sortu eta eustea: 1.174.135 euro.
- ✓ Abian jartzea adikzioen gizarte-prebentziorako programak, jardun-esparru horretan jokabide osasungarriak sustatzeko tokiko planei atxikitakoak: 561.765 euro.
- ✓ Adikzioen esparruan jokabide osasungarriak sustatzeko eta arriskuak eta kalteak murrizteko proiektuak gauzatzea: 882.500 euro.

Laguntza horiek emateko baldintzak arautzen dituen Agindua abuztuaren 28an argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA). Eskabideak aurkezteko epea abuztuaren 28an hasiko da eta hilabetekoa izango da, data horretatik hasita.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK HIRIGUNE PROGRAMAREN DEIALDIA EGIN DU HIRI-MERKATARITZAREN ELKARLANERAKO, DINAMIZAZIORAKO ETA LEHIAKORTASUNERAKO ESTRATEGIAK SUSTATZEKO**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Hirigune programaren deialdia onetsi du. Programa honek hiru milioi eta zortzirehun mila euroko aurrekontua du eta hiri-merkataritzaren elkarlanerako eta dinamizaziorako eskualde-estrategiak garatzeko da.

Programa honek hiriguneetan merkataritzaren lehiakortasuna eta markapositionamendua hobetzea ditu helburu. Gainera, eskualde-elkarlanerako urteko proiektuen ezarpena eta garapena bultzatzea du asmoz. Hala, merkataritza-dentsitate txikiko eremuetan kokatutakoak izango dira, beren izaeratik proposamen estrategikoak egingo dituztenak indarberritu behar diren eskualde-hornikuntza komertziala hobetzeko.

Deialdi honetan nabarmentzekoa da hartzaile-talde berri bat dagoela: 10.000 biztanle baino gehiago eta 100dik gora establezimendu komertzial dituzten udalerrak, 2017ko urtarrilaren 1eko datan EAeko batez bestekoa baino langabezia-tasa altuagoa dutenak.

Bestalde, programa honen onuradun izango dira Merkatarien Elkartek, Elkarte mistoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarten Federazioak edo Konfederazioak, Merkatarien Zentsuan inskribatuak. Era berean, programa honen onuradun izan daitezke EAeko 15.000 biztanletik gorako udalerrak edo 15.000 baino gutxiago dituztenak, Hirigune Historikoa dutenak, eta merkataritza indarberritzeko potentzialtasuna erakusten dutenak, beren eskualde-eremuan erreferentzi gune ekonomiko/komertzial gisa hartuak eta 100 establezimendu baino gehiago dituzten eskualde-buruak.

Hirigune programak 3.800.143 euroko aurrekontua du eta horietatik 1.925.000 euro elkarteei zuzenduko zaizkie, eta 1.875.143 euro udalei.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### BARBADUN IBAIAREN INGURUA KULTURA-ONDASUN DEKLARATZEA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

- **Txosten teknikoaren arabera, “ondarearen aldetik balio handiko eremua” da**

Eusko Jaurlaritzak Barbadun ibaiaren ingurua kultura-ondasun deklaratzeko onartu du, monumentu multzoaren kategoria emateko, zehazki. Erabakia Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek hartutako ebazpenaren ondorio da. Teknikariek egindako txostenean Barbadun ibai-arroaren industria-paisaiak historiaren eta kulturaren aldetik duen balioa azpimarratzen da. Txosten horren arabera, multzo honek merezi du kalifikazio hori, adierazitako kategorian, ematea, ondarearen aldetik duen balioa kontuan hartuta.

Txostenean jartzen duenez, “Barbadun ibaiaren arroak balio handia du ondarearen ikuspegitik, industrializazio handiaren aurretik Euskadiko Kantauri ertzeko haranetan ezarri ziren burdinolen eta erroten adibidea izanik”. Dokumentu horretan beste hau ere jartzen du: “Inguru horretan Erdi Aroko eta Aro Modernoko ekoizpen-elementuak topa daitezke batera eta gainjarrita, hala nola, burdinolak eta errotak, gaur egungo beste elementu batzuekin batera eta meatzaritzari zuzenean lotuta”.

Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean lau babes-arlo ezartzen dira: ondasun higigarriak, higiezinak, arkeologikoak eta etnografikoak. Bestalde, arlo horietan, hiru kategoria ezartzen ditu: monumentua, monumentu-multzoa eta kultur gunea. Hala ere, Gobernu Kontseiluak uztailaren 18an onartu zuen Kultura Ondarearen Euskal Legearen aurreproiektuan hainbat berrikuntza daude honen inguruan. Legebiltzarrean laster eztabaidatu eta adostuko den proposamen berriaren berrikuntzetako bat bertan ezarritako hiru babes-arlo berrietan dago: ondare higiezina, higigarria eta ondare inmateriala. Gainera, hiru esparru horien baitan guztira 13 kategoria jaso dira, horien artean, ondasun higiezinaren barruan, kultura-paisaiaren kategoria. Aurreproiektuak aurrera eginez gero, kultura-paisaia kategoria berri horretan sartuko litzateke Barbadun ibaia.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 600.000 EURO BIDERATUKO DITU MUSEOEN JARDUERA LAGUNTZERA**

- **Diru-laguntza jasotzen duten erakundeek Museoen eta Bildumen Erregistroan izena emanda egon beharko dute**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du 600.000 euro bideratzea Euskadiko Museo Sistema garatzeko diru-laguntzetara. Laguntza-lerro hori Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroan izena emanda dauden museo eta bildumentzat da. Guztira 43 erakunde daude zerrenda horretan.

Diruz lagundutako jarduerak honako jarduketak-lerro hauetakoren batekoak izango dira:

- Bilduma osatzen duten funtsak dokumentatzea, eta hura hobeto ezagutzea.
- Erakusketa etengabe berritzea eta aldi baterako erakusketak egitea.
- Museoaren edo bildumaren gaiarekin eta jarduera-esparruarekin bat datozen jarduera didaktikoak eta kultura zabalkundekoak diseinatu eta eskaintzea.
- Museoaren edo bildumaren gaiarekin eta jarduera-esparruarekin zerikusia duen jakintza zientifikoa sortzea.
- Kudeaketa hobetzea eta berrikuntza sustatzea.

2016ko deialdian 38 diru-laguntza eman zitzaizkien 24 erakunde desberdini; gehienak udalak, fundazioak eta museoen elkarte titularrak ziren.

## Presidencia

### EL GOBIERNO VASCO CONCEDE CERCA DE 4,5 MILLONES DE EUROS A PROYECTOS DE EMERGENCIA Y ACCIÓN HUMANITARIA

- **Los 15 proyectos aprobados atenderán a las poblaciones afectadas por crisis humanitarias en Palestina, Sahara, Etiopía, República Democrática del Congo, República Centroafricana, Siria, Perú, Filipinas y Colombia**

El Gobierno Vasco, a través de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo (AVCD), ha aprobado la concesión de ayudas a ONGD de Euskadi para que desarrollen proyectos de acción humanitaria en varias zonas del mundo. En concreto, la AVCD ha asignado ya la mayoría de los 4,7 millones previstos para estas ayudas que fueron convocadas el pasado mes de abril en sus dos modalidades:

- **Línea de financiación permanente** y, por lo tanto abierta durante todo el año o hasta el agotamiento de fondos, dotada con 2,3 millones de euros. Se incluyen en esta línea proyectos de emergencia para la primera atención a personas afectadas por desastres. También abarca proyectos de acción humanitaria orientados a la preparación y prevención de desastres, mitigación y rehabilitación post-desastres y la construcción de la paz y la protección de los derechos humanos y el Derecho Internacional Humanitario.
- **Línea de estrategias-marco de acción humanitaria**, de concurrencia competitiva y dotada con 2,4 millones de euros. A través de las estrategias-marco, organizaciones especializadas en el ámbito humanitario atienden, sobre todo, crisis olvidadas. Se trata de acciones de más larga duración y presupuesto que acompañan a poblaciones afectadas por crisis con menor cobertura mediática y, por lo tanto, con menor apoyo por parte de los donantes humanitarios.

En lo que se refiere a la primera modalidad (**proyectos de emergencia y acción humanitaria de la línea de financiación permanente**), las ayudas del Gobierno Vasco irán destinadas a 12 proyectos presentados por las siguientes ONGD vascas:

- Proyecto de la Asociación COOPERA para atender a niñas, niños y adolescentes víctimas de violencia sexual en Kivu Sur (República Democrática del Congo).
- Proyecto de la Asociación de Amigas y Amigos de la RASD para reforzar el stock de alimentos de los campamentos saharauis en Tinduf.
